

## DBH4 BIOlogi-GEOlogia: "Eboluzioaren harira, genetikari begira"

### Edukiak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Emandako euskarriak erabilita, Lur planetan biziaren sorrerari buruzko teoriak, sinesmenak, hipotesiak eta bizidunen garapenean eragina duten faktoreak identifikatuz eta aztertuz, ikerketari lotutako azalpenak eta galderak zientifikoki adierazi eta erantzun.	<p>1.1. Biziaren sorrerari buruzko teoriak identifikatu eta arrazoitu ditu.</p> <p>1.2. Bizidunen eboluzioari eta espezie berrien sorrera azaldu ditu.</p>
2. Hainbat euskarri erabiliz, eboluzioaren teoriak eta, bizidunen eboluzioari lotutako ezaugarriak aztertuz eta interpretatuz, emandako iritziak eta erantzunak arrazoitu.	<p>2.1. Eboluzioaren teoriak identifikatu eta azaldu ditu.</p> <p>2.2. Eboluzioaren frogak identifikatu eta arrazoitu ditu.</p> <p>2.3. Gizakiaren eboluzioaren ezaugarriak identifikatu eta arrazoitu ditu.</p>
3. Ikerketaren ondorioetan oinarrituz eta izakien herentziaren teoria eta teoria kromosomikoaren hastapenak erabiliz emaitzak kalkulatu, adierazpenak balioetsi eta formulatutako galderak erantzun eta arrazoitu.	<p>3.1. Teoria kromosomikoa eta honi lotutako hiztegia azaldu du.</p> <p>3.2. Herentzia motak desberdindu ditu.</p> <p>3.3. Genetikako problema eta Mendelen legeak ebatzi eta arrazoitu ditu.</p>